

# KANALAK



---

Banaketa- edo merkaturatze-kanalak hotel baten erreserba-prozesuan parte hartzen duten bitartekari-sare gisa defini ditzakegu. Bezero potentzialak informazioa, argazkiak, eskuragarritasuna eta bidaia antolatzekeo tarifak aurkituko ditu haietan.

Banaketa Hotel-Bungalow Izarraren aldagai garrantzitsuenetako bat da, gure produktu edo zerbitzuak gure bezeroen eskura jartzeko, behar duten unean eta tokian. Ez da nahikoa hotel on bat izatea; gure lehentasuna, gure bezeroek hoteleko informazioa, gure zerbitzuak edo prezioa eskuratzeko zailtasunik ez izatea da.

Hotelak merkaturatzeko kanal bat bitartekari gisa aritzen da hotelaren eta gure bezeroen artean erreserba egitean. Bere eginkizunak bidaia-agente batek egingo lituzkeen antzekoak dira. Aldea da, linean denez, denbora eta dirua aurrezten direla.

Bi banaketa-kanal mota daude. Lehenengoa zuzena da, non, izenak adierazten duen bezala, salmenta zuzenean egiten baita hotelarekin, zehazki haren web orritik. Bigarrena, metabilatzaile edo atari turistikoetan oinarritzen da, zeharkakoa deitzen da eta bezeroei azken erabakia hartzen laguntzen dio.

Gure kasuan, bi kanal-motak eskaintzen dizkiegu bezeroei, gure hotelak bere web orria baitu eta beste metabilatzaile batzuen bidez bila baitaiteke.

Gure hotelak web orri bat du, [HotelIzarrarra.es](http://HotelIzarrarra.es) izena duena. Gure hotelean erreserbatzeko balio duen online bidaia-agentzia da hau. Hegaldien eskaintzak, alokairuko autoak... ere sartzen dira.

Gure hoteleko eta haren zerbitzuetako informazio guztia biltzea da gure eginkizuna, gure bezeroek gure hotela aukera dezaten, guztiz egokitutako esperientzia segurua eta, aldi berean, dibertigarria eta ahaztezina izateko segurtasunik handienarekin.